

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 269/2020 Erabakia, ekainaren 23koa. Onespena ematea aldatzeari maiatzaren 29ko 264/2018 Erabakia, zeinaren bidez onetsi baitzen 2018ko ekitaldirako laguntzen deialdia, ikus-entzunezko proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 29ko 264/2018 Erabakiaren bidez, onetsi egin zen ikus-entzunezko proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzen 2018ko ekitaldirako deialdia.

Erabaki horren 28.2 artikulua dioenez, film laburrak ekoizteko emandako laguntza justifikatzeko, onuradunak auditoria txostena aurkeztu behar du, zeinak honako hauek egiaztatuko baititu: "filmaren kostua, produktoreen benetako ekarpenak eta ekoizpenaren gaineko horien titulartasun kuotak, baita laguntza eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioan adierazi den Arabako Lurralde Historikoko enpresa eta giza baliabideen ehuneko osoa bete dela ere".

Alabaina, geroago ikusi da betekizun hori gehiegizkoa izan litekeela film laburrentzat; eta, hala, film baten kostuaren eta ekoizlearen inbertsioaren aitorpena arautzen duen ECD/2784/2015 Aginduak, abenduaren 18koak, 7. artikuluan xedatzen du film laburren kostua gastuen agiri originalak aurkeztuta egiaztatu ahal izango dela.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, lehenengo diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea ikus-entzunezko proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidoiak idazteko 2018ko ekitaldirako laguntzen deialdiaren 28. artikuluko 2.b) apartatua. Hauxe gehitzen zaio apartatuari amaieran:

"Auditoretza txosten horren orde, hura sostengatzen duen dokumentazioa aurkeztu ahal izango da: fakturak, nominak eta ordainagiriak, Arabako baliabideen kostua eta ehuneko egiaztatze; eta ekoizpenaren titulartasunaren erantzukizunpeko adierazpenak".

Bigarrena. Ebazpen honen bitartez administrazio bidea bukatuko da eta, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat etorriz, berraztertze aukerazko errekurtsoa jarri ahal izango da Foru Gobernu Kontseiluan ebazpena argitaratu ondorengo egunetik hasita hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta atzeraeraginezko izaera izango du 2018ko abenduaren 28tik aurrerako ondorioekin egun horretan ebatzi baitzen laguntzen deialdia; izan ere, aldeko ondorioak ditu interesdunengan, lortutako dirulaguntza justifikatzeko bide gehigarri bat ahalbidetzen duelako.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiordea era Ekonomia Garapenaren,

Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren diputatua

MARIA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria

JAVIER HERNANDO GARCÍA